

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

USURBILGO UDALA

*2016an nekazaritza eta abeltzaintza egitasmoak burutzeagatik diru-laguntzak eskatzeko deialdia.*

Usurbilgo Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko urtarrilaren 31ko bilkuran, besteren artean, nekazaritza eta abeltzaintza egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak onartzea erabaki zuen.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio bideari.

Errekurtsoak.

— Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsoa aurkez dezake urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako: erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa.

— Bestela, erabaki hau berraztertze eskatu ordez, edo berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Gipuzkoako Kontentzioso-Administrazio-epaitegira jo behar da. Bestaldekik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, berariazko araudiaren arabera presuntziazko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.

Ondorioz oinarrien testu osoa argitaratzen da eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta hogeit egun baldioduneko epea ematen da interesatuek diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkez ditzaten, dagokion dokumentazio guztiarekin.

Usurbil, 2017ko urtarrilak 31.—Xabier Arregi Iparragirre, alkatea. (767)

*Usurbilgo Udalak, elkarte, erakunde eta norbanakoek udalerrian egiten dituzten nekazaritza eta abeltzaintza ekimenak butzatu eta sustatzeko asmoz, 2017 urteko diru-laguntza deialdia arautuko duten oinarri hauek onartu ditu.*

1. artikulua. Xedea.

Ebazpen honen xedea da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarri erregulatzailak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, nekazaritza eta abeltzaintza egitasmoak burutu dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei eta pertsoneri, beti ere aurretik udal dirulaguntzarik jaso ez badute. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzen III. Kapituluan I. Atalak ezartzen duena.

Diruz lagunduko diren egitasmoak 2016an zehar garatutakoak izango dira.

AYUNTAMIENTO DE USURBIL

*Convocatoria para solicitar subvenciones para proyectos agrícola-ganaderos desarrollados en el 2016.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Usurbil en sesión celebrada el 31 de enero de 2017, aprobó las bases que regulan las subvenciones para proyectos agrícola-ganaderos desarrollados en el 2016.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa.

Recursos.

— Podrá interponer contra éste acuerdo el Recurso de Reposición correspondiente ante la Junta de Gobierno Local. Todo ello conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. La persona solicitante podrá interponer dicho recurso en el plazo de un mes: contados a partir del día siguiente de la citada notificación.

— No obstante, alternativamente al recurso de reposición o en caso de oponerse al acuerdo de resolución del recurso de reposición, las personas interesadas podrán presentar directamente recurso contencioso-administrativo. El plazo para el mismo será de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la notificación del acuerdo. En ese caso deberá recurrirse en el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Gipuzkoa. Por otra parte, si la administración no resolviera el recurso de reposición, las personas interesadas podrán interponer el mencionado recurso contencioso-administrativo, a partir del día siguiente a aquel en que, de acuerdo con su normativa específica, se produzca el acto presunto.

Se publica el texto íntegro de las bases y se concede un plazo de 20 días hábiles a contar desde el día siguiente a su publicación para que las personas interesadas presenten las solicitudes para la obtención de las ayudas económicas junto con toda la documentación necesaria.

Usurbil, a 31 de enero de 2017.—El alcalde, Xabier Arregi Iparragirre. (767)

*Mediante la presente convocatoria el Ayuntamiento de Usurbil tiene por objeto fomentar y apoyar los proyectos agrícola-ganaderos que distintas asociaciones, entidades o particulares organizan en el municipio y para ello, se establecen las bases de la convocatoria del 2017 que regularán la concesión de subvenciones.*

Artículo 1. Objetivo.

Constituye el objeto de esta resolución el establecimiento de las bases reguladoras de la subvención que por parte del Ayuntamiento de Usurbil se concederá a actividades agrícola-ganaderas, en régimen de concurrencia competitiva, a entidades, públicas y privadas, y a particulares, y que no se hayan subvencionado previamente por parte del Ayuntamiento; ateniéndose en todo momento a lo establecido en el capítulo III del apartado I de la Ordenanza reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento Usurbil.

Actividades que se tendrán en consideración: las desarrolladas durante el 2016.

Diruz lagunduko dena da nekazaritza eta abeltzaintza arloan ekimenak garatzea, baldin eta Usurbilgo Udalak egiten dituen ekimenen osagarri badira edo ordezkatzeko badituzte edo erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak badira eta, beti ere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.

Diruz laguntzen diren ekintzak irekiak izango dira, herritarren artean inolako bereizketarik egin gabe.

Ez dira aintzat hartuko beste udal partida edo deialdietatik diru-laguntza jasotzen duten ekintzak.

Ezingo dute diru-laguntzarik jaso deialdi honen bidez bere izaera eta helburuak direla eta udalaren beste arlo batzuen beste programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, dagokion udal arloetara bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

## 2. artikulua. Onuradunak.

Diru-laguntza hauen subjektu onuradunak honako hauek izan daitezke:

Usurbilen nekazaritza eta abeltzaintza arloan ekimenak egiten dituzten pertsona juridiko zein fisikoak eta erakunde publikoak zein pribatuak, betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute. Usurbilgo udalerrian beren egoitza duten elkarteek diru-laguntzak lortu nahi badituzte, Elkarteen Udalerriaren inskribatuta egon behar dute.

Halaber, Usurbilgoak ez diren entitateek ere, eska dezakete diru-laguntza, baldin eta nekazaritza eta abeltzaintza arloan Usurbilen ekimenen bat burutzen badute eta izena emanda badaude dagokien Elkarte Erregistroan eta Udalerriko interesgarriak direla irizitako nekazaritza-abeltzaintza arloko jarduerak baldin badira.

Edozein kasuan, ez zaie diru-laguntzarik emango kideak aukeratzeko prozesuan edo jardunean sexu-bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak. Udalak atzematen badu elkarte edo erakundeak sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duela, diru-laguntza berdintasun legedia betetzearen arabera baldintzatua geratuko da, hau da, elkarte edo erakundeen estatutu edo funtzionamendu arauetan jaso beharko da kideak aukeratzeko prozesuan eta jardunean ez dela inor deusengatik baztertzen, bereziki ez dela sexuarengatik baztertzen. Beraz elkarte edo erakundeak sexuaren ziozko bereizkeria ezaren konpromiso aktiboa bere estatutu edo funtzionamendu arauetan jaso beharko du diru-laguntzaren justifikazioa aurkezteko momenturako.

Salbuespenez, eta Udal Ordenantzaren 5. artikuluko 4. atalak eta 6. artikuluko 7. atalak zehazten duten diru-laguntza eskabideak 3000 eurotik beherakoak izanez gero, onuradun izaera izan dezakete pertsona fisiko edo juridikoen taldeek, publikoak edo pribatuak, ondasun erkidegoek edo unitate ekonomikoa edo ondare berezia den beste edozein mota, nahiz eta nortasun juridikorik ez izan, udal laguntza edo diru-laguntza lor dezaketen proiektuak edo jarduerak egin nahi dituztenean, beti ere proiektuan sexu-bereizkeria ez bada ematen.

Merkatal enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira nahiz eta euren jarduerak zerikusia izan nekazaritza eta abeltzaintza arloarekin.

Onuradunek beti ere, Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorren 14. artikulua ezartzen dituen betebeharrak guztiak bete beharko dituzte.

3. artikulua. Eskariak aurkezteko lekua eta dokumentazioa.

Eskariak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskari-orrietan. Halaber, urria-

Será subvencionable el desarrollo de las iniciativas agrícola-ganaderas, que siendo complementarias o sustitutivas a las iniciativas que lleva a cabo el Ayuntamiento de Usurbil, conlleven una finalidad de utilidad pública o interés social y cumplan las condiciones que se establecen en la presente convocatoria.

Las actividades subvencionadas estarán abiertas a la participación de cualquier persona sin ningún tipo de distinción.

No se tomarán en consideración aquellas acciones que ya sean objeto de subvención por parte de otras convocatorias o partidas municipales.

No podrán recibir subvención por medio de esta convocatoria aquellas iniciativas que, por su condición y objetivos, deban ser canalizadas por medio de otro programa o de otros programas adscritos a otros ámbitos del ayuntamiento. En tales casos, la solicitud se derivará hacia los ámbitos municipales correspondientes, y se dará cuenta de ello a la persona interesada.

## Artículo 2. Personas o entidades beneficiarias.

Las personas o entidades beneficiarias de estas subvenciones podrán ser:

Personas jurídicas o físicas y organismos públicos o privados que realicen sus actividades en el ámbito de agrícola-ganadero en Usurbil, siempre que su objetivo sea llevar a cabo, mediante dichas subvenciones, alguna actividad de uso público o de interés social o que trabajen en pos de algún objetivo público. Las asociaciones que tienen su sede en el municipio de Usurbil que quieran optar a estas subvenciones, deberán estar inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones.

Asimismo, también podrán optar por la subvención las entidades que no pertenezcan a Usurbil pero que realicen actividades agrícola-ganaderas en esta localidad, siempre y cuando estén debidamente inscritas en el Registro de Asociaciones que les corresponda, y planteen actividades agrícola-ganaderas consideradas de interés para el municipio de Usurbil.

En cualquier caso, no se concederá ningún tipo de ayuda o subvención a ninguna asociación o entidad que discrimine por razón de sexo en su proceso de admisión o en su funcionamiento. Si el Ayuntamiento advirtiera que la asociación o entidad discrimina por razón de sexo, de conformidad con la ley sobre la igualdad, la ayuda económica quedaría condicionada. Este aspecto deberá de estar contemplado en los reglamentos de funcionamiento o estatutos de las asociaciones o entidades, es decir, en el proceso de admisión o funcionamiento no habrá discriminación por razón de sexo. Por consiguiente, las asociaciones o entidades, deberán de presentar en el momento de la justificación de la ayuda económica el compromiso activo sobre la no discriminación por razón de sexo, y ello se contemplará en los reglamentos de funcionamiento o estatutos de la entidad.

De manera excepcional, y siempre que las solicitudes de subvención especificadas en la sección 4 del artículo 5 y en la sección 7 del artículo 6 sean inferiores a 3.000 euros, los colectivos de personas físicas o jurídicas, sean públicos o privados, las comunidades de bienes o cualquier otra unidad económica que constituya patrimonio especial, pueden tener carácter de persona beneficiaria incluso sin disponer de personalidad jurídica, cuando desean realizar proyectos o actividades objeto de subvención, siempre que en el proyecto no se dé discriminación de género alguna.

Las empresas comerciales quedan excluidas de esta convocatoria aunque su actividad se desarrolle en el ámbito agrícola-ganadero.

Las personas o entidades beneficiarias deberán cumplir todas las obligaciones establecidas en el artículo 14 de la Ley General 38/2003 de Subvenciones.

Artículo 3. Lugar para la presentación de instancias y documentación.

Las solicitudes deberán ser presentadas en el Registro General del Ayuntamiento, en los impresos que a tal efecto dis-

ren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Diru-laguntza eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Diru-laguntza eskaera normalizatua (I. Eranskina).
- Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- Identifikazio Fiskaleko kodearen fotokopia (edo NANaren kopia, hala badagokio).
- Elkartearen Estatutuak (hala badagokio).
- Banketxe edo aurrezki erakunde batek emandako agiria, non eskaera egin duen erakundea edo pertsona fisikoa kontu korronte baten titularra dela ziurtatzen den.
- Elkartea Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren eta Ogasuneko betebeharrak egunegun egotearen egiaztatzea (hala badagokio) (II. Eranskina).
- Beste diru-laguntza eskabideen aitortzea (III. Eranskina).
- Elkarreak ez duela inor baztertzeko adierazten duen agiria (hala badagokio) (IV. Eranskina).
- Emakume eta gizonen berdintasunari lotutako ziurtagiria (hala badagokio) (V. ziurtagiria).
- Ekintzei buruzko fitxak (VI. Eranskina).

VI. eranskinean aurreikusten diren diru-gastuak kontzeptuaz azaldu behar dira. Udalaren esku geratzen da ekintza baten kontzeptu batzuk (funtzionamenduko gastuak...) diru-laguntza gai bezala onartu edo ez onartzea.

VI. eranskinean ekintza bakoitzari dagozkion diru-sarrerak adieraziko dira. Udalak ulertzen du printzipio gisa ekintza gehientsuenek udalarena ez den bestelako diru-sarreraren bat izan behar dutela. Udalak ekintza batek diru-sarrera izan behar lukeela ikusten badu, eta ekintza-fitxan ez baldin bazaio diru-sarrerarik aurreikusten, udalak, diru-laguntza izendatzerakoan, sarrera posible horiek aintzakotzat hartuko ditu.

Urtebete baino gehiagoko iraunaldia duten proiektuak direnean, eskaera-orian espresuki hala adieraziko da. Kasu haueetan urte bakoitzerako aurreikusten den gutxi gorabeherako diru-gastua ere adieraziko da.

Deialdira aurkezteko unean eskatzaileak ez du zorrik izango Usurbilgo udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu behar. Bestalde, diru-laguntza ordaintzeko unean Udalarekin zorra izanez gero, ez da diru-laguntzarik emango.

Aurreko urteko diru laguntzaren bat zuritu gabe dagoen kasuetan, ez da diru laguntza eskaera berririk onartuko.

Edozein kasutan, aurreikusitako ekimenari dagokion dokumentazioaz gain, entitate eskatzaileei behar besteko informazio osagarria eskatu ahal zaie aurkeztutako ekimena behar bezala baloratu ahal izateko.

#### 4. artikulua. Epeak.

Eskariak, diru-laguntza deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta 20 egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, biharamunetik kontatzen hasita.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe badago edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu ditzan edo dagokion dokumentazioa gehitu dezan. Eta jakinaraziko zaio, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erki-dearen 39/2015 Legearen 68.1 artikulua araberako, hala

pondrá para ello el Ayuntamiento. Asimismo, también podrán presentarse en los lugares mencionados por el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Para realizar la solicitud de subvención, deberá presentarse la siguiente documentación:

- Instancia normalizada de subvención (Anexo I).
- Fotocopia del DNI de la persona solicitante.
- Fotocopia del Código de Identificación Fiscal (o copia del DNI, si procede).
- Estatutos de la asociación (si procede).
- Certificado expedido por banco o caja de ahorros, en el que se certifica que el organismo o la persona física autor de la solicitud es titular de una cuenta corriente.
- Certificado de hallarse al día con las obligaciones respecto a la Seguridad Social y Hacienda (si procede) (Anexo II).
- Declaración de otras solicitudes de subvención realizadas (Anexo III).
- Certificado en el que se manifiesta que la asociación no discrimina a nadie (si procede) (Anexo IV).
- Declaración relativa a la igualdad de mujeres y hombres (si procede) (Anexo V).
- Fichas relativas a las iniciativas (Anexo VI).

En el anexo VI se reflejará el concepto de los gastos previstos. Será el Ayuntamiento quién decida la aprobación o no de algunos conceptos de actividades subvencionables (gastos de funcionamiento).

En el anexo V se reflejarán los ingresos correspondientes a cada actividad. El Ayuntamiento como principio entiende que la mayoría de las actividades deberán disponer de otros ingresos que no procedan de la subvención municipal. Si el Ayuntamiento decide que alguna actividad debe disponer de su correspondiente ingreso, y si en la ficha de actividades no se prevé ningún ingreso, el Ayuntamiento al acordar la subvención, tomará en consideración el posible ingreso.

Cuando la duración del proyecto es superior a un año, ello se reflejará en la hoja de solicitud. En su caso, se reflejará el gasto aproximado que se prevé para cada año.

La persona solicitante en el momento de presentar la solicitud no deberá tener deudas con el Ayuntamiento de Usurbil, a pesar de que no deberá presentar ninguna justificación al respecto. En aquellos casos en los que haya deudas para con el Ayuntamiento, no se concederá ninguna subvención.

En aquellos casos en los que no se haya liquidado la subvención correspondiente al año anterior, no se aceptará ninguna nueva solicitud de subvención.

Además de la documentación referida a la iniciativa prevista, se podrá requerir a la entidad solicitante que facilite la información complementaria que se estime oportuna para valorar adecuadamente la iniciativa en cuestión.

#### Artículo 4. Plazos.

Las solicitudes deberán presentarse en un plazo de 20 días hábiles contados a partir del día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Si la documentación presentada es incompleta o si no cumpliera con alguna de las condiciones estipuladas en las bases, la persona interesada dispondrá de un plazo de diez días hábiles para subsanar los errores o para incorporar la documentación correspondiente. Y se le indicará que, en base a los términos previstos en el art. 68.1 de la Ley 39/2015 de Procedi-

egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, horretarako ebazpena 21. artikuluan jasotako moduan eman ondoren.

#### 5. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko ondorengo partidan azaltzen den diru izendapena.

Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da: 1.62.00.481.412.00.03.

Araudi honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira dena delako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, diru-laguntza murriztu egingo litzateke. Gain finantzaketa gerora emango balitz, eta dirua itzultzeko beharizanen bat baino gehiago izanez gero, dena delako pertsona edo erakunde onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Usurbilgo Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

Bakoitzari zenbateko diru-laguntza emango zaion ezartzeko, honako hau kontutan hartuko da:

– Udalaren aurrekontuan xede horretarako aurreikusitako zenbatekoa.

– Aurkeztutako ekintzen kopurua eta nolakotasuna.

#### 6. artikulua. Prozedura.

Dagokion arloko teknikariak diru-laguntza eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta dagokion Batzordea eramango du, honek txostena kontuan hartuta, bere iritzia eman dezan. Ondoren, Diru-laguntzen Batzorde Orokorra ebazpen proposamena egingo du. Jarraian, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da ebazpen proposamenaren inguruko iragarkia eta interesatuak 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratzen den biharamnetik kontatzen hasita. Azkenik, Tokiko Gobernu Batzarrak emango du diru-laguntzei buruzko behin betiko ebazpena gehiezin ere, hiru hilabeteko epean eskaria aurkeztu izan den egunetik zenbatuta. Behin betiko ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Aipatutako epea igaro ondoren ebazpenik eman ezean, ulertu behar da eskaria gaitzetsi egin dela, gerora egin daitekeen ebazpenaren kaltetan izan gabe.

Udaleko iragarki taulan eta [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

#### 7. artikulua. Diru-laguntzaren Batzorde Orokorra.

Diru-laguntzen Batzorde Orokorra modu honetara osatuko da:

– Udalean diru-laguntzak banatzen dituen Batzorde bakoitzeko lehendakaria eta teknikaria.

– Alkatea.

– Udal idazkaria.

– Udal kontuhartzailea.

Diru-laguntza Batzorde Orokorren funtzioak, besteak beste, hauek izango dira:

– Udal diru-laguntzak banatzeko irizpideak bateratzea.

– Diru-laguntzen legezkotasuna bermatzea.

– Diru-laguntza bikoizketak ekiditea.

#### 8. artikulua. Baloratzeko irizpideak.

Diru-laguntzak ematerakoan, egitasmoak hartuko dira kontuan, ondoko irizpideen arabera:

miento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 21.

#### Artículo 5. Cuantía de la subvención.

La cuantía destinada a la subvención no superará las cantidades especificadas en la partida que se indica a continuación.

El gasto irá a cargo de la presente partida presupuestaria: 1.62.00.481.412.00.03.

Las subvenciones reconocidas por la presente Normativa serán compatibles con cualesquiera otras, concedidas por Organismos Públicos o Privados para el mismo objeto, sin que en ningún caso pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal caso la reducción de la subvención a conceder. En caso de que con posterioridad se generase una sobrefinanciación y concudiese más de una obligación de reintegro por esa causa, la persona o entidad beneficiaria reintegrará la cantidad proporcional que le corresponda en función de la aportación sobre el total que haya efectuado el Ayuntamiento de Usurbil.

Las subvenciones que se conceden se establecerán en base a los siguientes criterios:

– Cantidad prevista para ese fin en el presupuesto municipal.

– Cantidad y características de las actividades presentadas.

#### Artículo 6. Procedimiento.

El personal técnico del área evaluará las solicitudes de subvención y se encargará de realizar un informe que se trasladará a la Comisión correspondiente. Una vez analizado el informe, se hará una valoración, tras la cual, la Comisión General de Subvenciones dictará una propuesta de resolución. A continuación se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa el anuncio relativo a la propuesta de resolución y la persona interesada tendrá un plazo de 10 días a contar desde el día siguiente a la publicación del anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa para presentar las alegaciones oportunas. Finalmente, en Junta de Gobierno Local se dictará la resolución definitiva relativa a dichas subvenciones, en un plazo máximo de tres meses a partir de la fecha en que se ha presentado la solicitud. La resolución definitiva se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Si transcurrido dicho plazo no se hubiese producido ninguna resolución, debe entenderse que la solicitud ha sido rechazada, sin perjuicio de la resolución que pudiera sobrevenirse.

En el tablón de anuncios del ayuntamiento y en la página web [www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus) también se dará cuenta de la propuesta provisional y de la resolución definitiva.

#### Artículo 7. Comisión General de Subvenciones.

La Comisión General de Subvenciones está compuesta por:

– El o la presidenta y un técnico o técnica por cada Comisión que distribuye las subvenciones en el ayuntamiento.

– El alcalde.

– La secretaria municipal.

– La Interventora municipal.

Las funciones de la Comisión General de Subvenciones serán, entre otras, las siguientes:

– Unificar los criterios para el reparto de subvenciones municipales.

– Garantizar la legalidad de las subvenciones.

– Evitar la duplicidad de las subvenciones.

#### Artículo 8. Criterios de valoración.

Al conceder las subvenciones, se tendrán en cuenta los proyectos, en base a los siguientes criterios:

Gehienez ere kostu osoaren %50 a izango da eta eskatzaile bakoitzari gehienez 2.000 € emango zaizkio.

Ondokoak izango dira lehentasuna izango dituzten ekintzak:

- Usurbilgo nekazari gazteek (28 urtetik beherakoak) ustiapen berriak abiatzeko eta hobetzeko egitasmoak.
- Hildako animalien kudeaketa lanen gastuak.
- Ekoizpen ekologikoa bultzatzeko egitasmoak.
- Usurbilgo emakumeak nekazaritzan aritzeko ekintzak.
- Azken urteotan abandonatutako nekazal lurretan nekazal jarduera berreskuratzeko ekintzak, edo abandonatzeko arriskuan dauden lurrak berreskuratzeko ekintzak.
- Usurbilgo baserritarren lan-baldintzak hobetzeko ekintzak.
- Usurbilgo nekazal produktuen bertako kontsumoa bultzatzeko ekintzak.
- Bertako abere arrazak berreskuratzeko edota bultzatzeko abeltzaintzako egitasmoak.
- Nekazarien prestakuntza hobetzeko egitasmoak.

2005eko Gizonen eta Emakumeen Arteko Berdintasunerako Legea aintzakotzat hartuta, diru-laguntzak ematerakoan kontuan izango da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde zer konpromiso maila duten taldeek, bai zuzendaritzari begira, bai egiteko asmoa duten jardueri begira. Hiru ikuspuntutik egiten da balorazio berezi hau: sexu rola eta estereotipoak hausten laguntzen duten ekimenak; emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzen duten ekimenak; emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan sentsibilizazio edo prebentzio ekimenak.

Nolanahi ere, aurreko irizpideetan baloratu ez diren bestelako herri intereseko irizpideak kontuan hartzeko aukera izango da.

#### 9. artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntza eman dela jakinarazi bezain laster, diru-laguntzaren %100a ordainduko da.

#### 10. artikulua. Betebeharrak.

Deialdi honetako diru-laguntzak jaso dituzten entitate onuradunek, Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte. Besteak beste, ondorengo hauek:

1. Diru-laguntza emateko eskatzen den jarduera gauzatu izatea.
2. Jarduera egin dela frogatzea. Orobat, laguntza emateko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela egiaztatzea.
3. Diruz lagundutako jarduera betetzeko baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
4. Diru-laguntza eskaini duen Usurbilgo Udalak egin beharreko egiaztatze-jarduketei trabarik ez jartzea, ez eta esku-hartzailetzari dagozkion finantza-kontrolak jarduketei, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei ere.
5. Beste administrazio edo erakunde batzuetatik (publiko nahiz pribatuetatik, estatuko nahiz nazioartekoetatik) helburu berbererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, diru-laguntza eskaini duen organoari horren berri ematea.
6. Diru-laguntza eskaintzeko garaian kontuan hartutako atalen batean aldaketarik gertatuz gero (objektiboa nahiz subjektiboa izan), diru-laguntza eskaini duen organoa aldaketa horren jakinarekin gainean jartzea eta beronen onespina izatea.

Como máximo se subvencionará el 50% del coste de la actividad subvencionada, con un máximo total por solicitante de 2.000 €.

Tendrán prioridad las siguientes actividades:

- Las iniciativas de los/las agricultores jóvenes (menos de 28 años) para iniciar o mejorar las nuevas explotaciones agrarias.
- Gastos de gestión de animales muertos.
- Iniciativas para impulsar la agricultura ecológica.
- Iniciativas para que la mujer usurbildarra trabaje en agricultura.
- Iniciativas para recuperar la actividad agraria en aquellos suelos agrarios que hayan quedado en desuso recientemente, o estén en riesgo de abandono.
- Iniciativas para mejorar las condiciones laborales de los/las baserritarras de Usurbil.
- Iniciativas para impulsar el consumo local de productos de Usurbil.
- Iniciativas ganaderas para impulsar y/o recuperar las razas locales.
- Iniciativas para mejorar la formación de los/las agricultores de Usurbil.

A la hora de adjudicar subvenciones a las asociaciones, se tendrá en cuenta el compromiso de estas con la igualdad de mujeres y hombres, tanto en lo referente a la composición de sus órganos directivos como en relación a las actividades que pretendan desarrollar, teniendo siempre en cuenta la Ley de 2005 sobre la Igualdad de Mujeres y Hombres. Esta valoración se realiza teniendo en cuenta tres criterios: actividades que tengan por finalidad romper con roles y estereotipos sexistas, actividades que promuevan el empoderamiento y la autonomía de la mujer; actividades de sensibilización o prevención contra la violencia de género.

De todos modos, cabe la posibilidad de tener en cuenta otros criterios que se consideren de interés del municipio.

#### Artículo 9. Pago de la subvención.

Inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el pago del 100% de la ayuda.

#### Artículo 10. Obligaciones.

Las entidades beneficiarias que hayan recibido subvenciones de esta convocatoria, deberán cumplir las obligaciones que establece el artículo 6 de la Ordenanza que regula las subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil. Entre otras, las siguientes:

1. Haber realizado la actividad requerida para la concesión de la subvención.
2. Acreditar la realización de la actividad y, en definitiva, el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinan la concesión de la ayuda.
3. Obtener todos los permisos para el cumplimiento de la actividad objeto de subvención, y cumplir lo establecido en los mismos.
4. El sometimiento a las actuaciones de comprobación a efectuar por el Ayuntamiento de Usurbil y a las de control financiero que corresponden a la Intervención y a las previstas en la legislación del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos que tengan atribuidas dicha competencia.
5. En caso de percibir alguna otra subvención, para el mismo objetivo, de otras administraciones o instituciones (sean públicas o privadas, estatales o internacionales), informar al órgano ofertante de la subvención.
6. Comunicar a la entidad concedente las modificaciones, objetivas o subjetivas, que se practiquen en cualquiera de los aspectos que han sido relevantes para la concesión de la subvención, y obtener su aprobación.

7. Indarrean dauden xedapenen arabera Gizarte Segurantzaren eta Ogasun Publikoaren aurrean dituzten betebeharrak ezagutzea, Usurbilgo Udalak ezarritakoak barne.

Horretarako, eskatzaileek idatzizko aitortzean adieraziko dute Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera dagoela edo Ogasun Arloko betebeharrak betetzen dituela.

Bestalde, udal betebeharrak dagokienez, udalak berak ofizioz, dagozkion ziurtagiriak eskura ditzake.

8. Diruz lagundutako ekintzek herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dituzte.

Era berean, diruz lagundutako jarduerak aintzakotzat hartuko ditu Euskararen Udal Ordenantza, Usurbilgo Udalaren Euskararen Erabilera Plana, UEMAren hizkuntza irizpideak, gainerako araudia eta Usurbilgo herriaren errealitate soziolingüistikoa.

9. Diruz lagundutako jardueretan eta jardueren iragarpean hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu behar da, Pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez estereotipatuan islatu behar da, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legeak agintzen duen modura. Berdintasun-betebehar hori betetzen duela frogatu beharko du onuradunak argitaratutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta abarretan.

10. Ekintzei lotutako publizitatean Usurbilgo Udala babesletzat adierazi beharko da, udalaren logoa erantsiz.

11. Diru-laguntza gai diren ekintzak bideratzerakoan, hondakinei dagokienez Usurbilgo Udalean Hiri Hondakinak bildu eta tratatzeko udal Ordenantzak eta udalak zehaztutako protokoloak jasotakoak beteko dira.

#### 11. artikulua. Diru-laguntza justifikatzea.

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate edo pertsona onuradunak jarraian zehazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du:

a) Egindako jardueraren memoria (VI. Eranskinaren araberrakoa), ahalik eta zehatzena. Bertan, diru-sarrerak eta gastuak erantsiko dira.

b) Gastuaren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak. Egiaztagiri hauek, ezinbestez, diru-laguntza eman zeneko helburu eta ekintzei dagozkien gastuei buruzkoak beharko dira izan. Ez dira onartuko beste helburu batzuetarako egindako gastuen egiaztagiriak. Justifikazioa egiterako orduan kontuan hartuko da diru-laguntza ematerako orduan oinarritat hartu zen gastuaren aurrekontua, eta benetako gastua. Proporzionaltasunaren araua aplikatuko da, beti ere emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Fakturretan hauxe agertuko da:

- Erakundearen edo/eta elkartearen identifikazioa.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren data.
- Jarduera.
- Zerbitzuaren deskribzioa.

Diru-laguntzaren bidez egiten den jarduera antolatzeagatik ez da diru-saririk jasoko.

c) Diru sarreren egiaztagiri originalak edo fotokopia konpultsatuak.

d) Justifikazioari honakoak erantsi beharko zaizkio: azterketa, programa, publikazio eta horma-irudi iragarleen bi ale (hala badagokio).

7. Tener conocimiento de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social, según lo establecido en las disposiciones vigentes, en las que se incluyen las establecidas por el Ayuntamiento de Usurbil.

Para ello, las personas solicitantes manifestarán en la declaración escrita hallarse al corriente de sus obligaciones para con la Seguridad Social o que cumplen con aquellas otras obligaciones referidas al ámbito de la Hacienda.

Por otra parte, con relación a las obligaciones del Ayuntamiento, el mismo, de oficio, podrá recabar los certificados correspondientes.

8. Las actividades subvencionadas garantizarán los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

Asimismo, para el desarrollo de la actividad subvencionada se prestará atención a los preceptos establecidos por la Ordenanza Municipal del Euskera, Plan de Euskara, criterios lingüísticos de UEMA y demás normativa relacionada, al igual que a la realidad sociolingüística del municipio de Usurbil.

9. Se garantizará la incorporación de imágenes no sexistas en las actividades subvencionadas y en la publicidad de las mismas. En la visualización de las personas no se reproducirán estereotipos sexistas y se impulsará una presencia equilibrada de mujeres y hombres, tal y como establece la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres. La persona o entidad beneficiaria deberá de justificar el cumplimiento de la igualdad mediante documentos publicados: anuncios, notas, notificaciones, etc.

10. En la publicidad relativa a la actividades deberá constar expresamente el patrocinio del Ayuntamiento de Usurbil, adjuntando el logotipo municipal.

11. A la hora de tramitar las actividades objeto de subvenciones, con relación a los residuos se deberá de cumplimentar el protocolo establecido por el Ayuntamiento y las Ordenanzas municipales de Usurbil sobre recogida y tratamiento de residuos urbanos.

#### Artículo 11. Justificación de la subvención.

Para la justificación de la ayuda concedida, la entidad o persona beneficiaria deberá presentar la documentación que se indica a continuación.

a) Memoria de la actividad realizada, lo más detallada posible y con la relación final de ingresos y gastos (según el modelo propuesto en el Anexo VI).

b) Justificantes originales del gasto o fotocopias compulsadas. Los justificantes deberán corresponder necesaria y exclusivamente a los gastos ocasionados con el cumplimiento de los fines y actividades para los que se concedió la subvención; no pudiendo admitirse como justificación los gastos realizados con otro objeto. Para la justificación se tendrá en cuenta el gasto previsto inicialmente y el gasto final, de tal manera que se aplicará el principio de proporcionalidad, que tendrá como límite la cantidad concedida para la subvención.

En las facturas se indicará lo siguiente:

- Identificación de la entidad o asociación.
- Identificación de la entidad proveedora.
- Fecha de la factura.
- Actividad.
- Descripción del servicio.

No se admitirá la remuneración económica por la labor de organización de la actividad.

c) Justificantes originales o fotocopias compulsadas de los ingresos percibidos.

d) Para la justificación se deberá aportar dos ejemplares de los estudios, programas, publicaciones y carteles anunciantes de la actividad (si procede).

e) Diru-laguntza ekintzaka zurituko da.

f) Ekintzari buruzko lau argazki formatu digitalean. (Argazki hauek udalak herri intereseko helburuetarako erabili ahal izango ditu).

*12. artikulua. Dirua itzultzea.*

Deialdi honetako 11. artikulua b) paragrafoak ezartzen duena betez, diru-laguntza eman deneko jardueraren gastuaren aurrekontuari dagokion gastua justifikatzen ez bada, diru-laguntza osoa edo zati bat eta dagokion berandutze-interesa itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitu Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren bereko 15. artikulua eta, beti ere, Ordenantza bereko 16. artikulua arautzen duen prozedura jarraituz.

*13. artikulua. Araudi osagarria.*

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzak ezartzen duena eta Herri Administrazioetako Diru-laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

e) La subvención se justificará desglosada por cada una de las actividades.

f) Con relación a la actividad, se deberá de presentar 4 fotografías en formato digital (El Ayuntamiento podrá hacer uso de estas fotografías para fines sociales).

*Artículo 12. Devolución del dinero.*

Procederá el reintegro total o parcial de la ayuda y del interés de demora correspondiente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 15 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones vigente en el Ayuntamiento de Usurbil y siguiendo el procedimiento que regula el artículo 16, cuando no se justifique la realización del gasto equivalente al presupuesto de gasto de la actividad que sirvió de base para la concesión de la subvención, tal y como indica el artículo 11 párrafo b) de esta convocatoria.

*Artículo 13. Normativa complementaria.*

En lo no dispuesto en esta convocatoria se estará a la regulación contenida en la Ordenanza reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Usurbil y a lo dispuesto en la Ley 38/2003 reguladora de Subvenciones de la Administración Pública.



Usurbilgo Udala

DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGITEKO  
AURKEZTUTAKO AGIRIAK

Hona hemen aurkezten ditugun agiriak (gurutze batez markatu):

- Diru-laguntzarako eskaera orria eta eranskina beteta. (I. Eranskina)
- Elkartea Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eta Gizarte Ogasuneko betebeharretan egunera egotearen egiaztagiria. (II. Eranskina)
- Beste diru-laguntzei buruzko aitortpena. (III. eranskina)
- Elkarreak ez duela bazterketarik egiten adierazten duen agiria. (IV. Eranskina)
- Emakumeen eta Gizonen berdintasunari lotutako agiria. (V. Eranskina)
- Ekintzei buruzko fitxak beteta. (VI. Eranskina)
- Identifikazio Fiskaleko kodearen fotokopia
- Nortasun agiriaren fotokopia
  
- Besterik: Zehaztu:

Usurbilen, 2017ko \_\_\_\_\_ en \_\_an

Sinadura





Usurbilgo Udala

I. Eranskina

<b>DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA TALDEARI edo NORBANAKOARI BURUZKO DATUAK</b>	<b>2017</b>
---	-------------

**A) ELKARTEARI BURUZKO DATUAK**

Entitate eskatzailea:		Erregistro zk.:	
Entitatearen helbidea:			
Herria:		PK:	
Telefonoa:	E-maila:	IFK:	
Faxa:			

**B) ARDURADUNARI BURUZKO DATUAK**

Izen-abizenak:		Ardura:	
Helbidea:		PK:	
Telefonoa:	Faxa:	E-maila:	

**B) KONTU KORRONTEARI BURUZKO DATUAK**

Banketxea:	Sukurtsala:
Sukurtsalaren helbidea:	Herria:
K/k zk. (20 digitu):	

**C) TALDEARI BURUZKO DATUAK**

Noiz sortutako taldea den:	
Urtean zehar zenbat ekintza antolatzen dituen:	
Gaur egungo taldekide kopurua:	
Herriko beste talderen batekin elkarlanean zer bait antolatzen al duzue?	Zer?


**D) EKINTZAK**

Elkarteak 2017an egingo dituen ekintzen zerrenda (Ondoren, ekintza bakoitzeko fitxa bat bete behar da)
---

Usurbilen, 2017ko \_\_\_\_\_ren \_\_an

Izenpetua

\* Datu hauek ezin izango dira erabili berariaz finkatu diren xedeak ez direnetarako, Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren arabera.



Usurbilgo Udala

## II. Eranskina

# EGIAZTAGIRIA<sup>1</sup>

Honen bidez adierazten dut \_\_\_\_\_ Elkarteak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eta Gizarte Ogasuneko betebeharrak egunera dagoela.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbilen, 2017ko \_\_\_\_\_ren \_\_an.

Sinadura

---

1

Erregistratutako taldeek bakarrik bete beharrekoa..



Usurbilgo Udala

### III. Eranskina

## USURBILGO UDALAZ KANPOKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO AITORPENA

#### DATUAK

Izen-abizenak:			
Helbidea:			
Herria:		PK:	
Telefonoa:	E-maila:	NAN:	

#### ZINPEAN AITORTZEN DUT

Aurkeztu ditudan ekintzetarako ez dudala Usurbilgo Udalez kanpoko diru-laguntzarik eskatu.

Diru-laguntza hau eskatu dudala edo eskatzea aurreikusten dudala:

Erakundea:

Diru-kopurua:

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbil, 2017ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_a

Sinadura



Usurbilgo Udala

#### IV. Eranskina

## EGIAZTAGIRIA

Honen bidez adierazten dut \_\_\_\_\_ Elkarteak kideak  
aukeratzerakoan edo jardunean ez duela inor deusengatik bazterzen.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbilen, 2017ko \_\_\_\_\_ren \_\_an.

Sinadura



Usurbilgo Udala

## V. Eranskina

# EGIAZTAGIRIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1 eta 24.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera, adierazten dut \_\_\_\_\_ elkarreak:

- Ez duela urratzen emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa honakoei dagokionez: helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua eta/edo estatutuetan.
- Ez duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondoriozko debekurik.
- Ez duela sexu-bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapenik eta/edo zehapen penalik.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betekizunak betetzen direla.
- Onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan ez duela sexuagatik bereizkeria egiten.

Eta hala jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut.

Usurbilen, 2017ko \_\_\_\_\_ren \_\_ an.

Sinadura



Usurbilgo Udalak

VI. Eranskina

<b>DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO ORRIA EKINTZEI BURUZKO FITXAK</b>		<b>2017</b>
<b>EKINTZAREN IZENA</b>	Taldea:	
<b>EKINTZARI BURUZKO DATU OROKORRAK</b>		
Helburua:		
Azalpen laburra:		
Noiz egingo da:		
Non egingo da:		
Nori dago zuzendua:		
Ekintza irekia al da?		
Gutxi gorabeherako hartzaile kopurua:		
Antolaketan zenbat lagunek parte hartzen duzue? (emakumezkoen eta gizonzkoen kopuruak bereiziz):		
Antolatuko den ekintzan emakume eta gizonen berdintasuna sustatzen da? Zergatik?		
Bakarrik edo beste talde batekin elkarlanean egingo da ekintza? Norekin?		
Zein hizkuntzatan egingo da ekintza?		
Ekintzaren inguruan zerbait (publizitatea, eskuorria...) argitaratu behar al duzue?		



Ursurbilgo Urdalaga

EKINTZA HONETARAKO AURREIKUSITAKO GASTUA (Kontzeptutuka zehaztu)		AURREIKUSITAKO DIRU-SARRERAK	
		- Erakunde publiko edo pribatuetatik: (Adierazi diru-laguntza bakoitza zein ekintzetarako eman den.)  - Matrikula eta sarreretatik:  - Bestelakoak:	
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>	
<b>UDALARI EKINTZA HONETARAKO ESKATZEN DIOGUN DIRU-LAGUNTZA:</b>			

**Oharrak:**

Ursurbilen, 2017ko \_\_\_\_\_ren \_\_\_\_an

Sinadura



Usurbilgo Udala

## DOCUMENTACION PRESENTADA PARA SOLICITAR LA SUBVENCION

La documentación que aportamos es la siguiente (marcar con una cruz):

- Impreso normalizado de solicitud de subvención debidamente cumplimentado (Anexo I)
- Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias y de seguridad social (Anexo II)
- Declaración sobre otras subvenciones concedidas (Anexo III)
- Documento que justifique la no discriminación por parte de la asociación (Anexo IV).
- Certificado de cumplimentar la normativa correspondiente a la igualdad entre mujeres y hombres. (Anexo V)
- Fichas de actividades debidamente cumplimentadas (Anexo IV)
- Fotocopia del Código de Identificación Fiscal
- Fotocopia del Documento Nacional de Identidad
  
- Otros (concretar):

En Usurbil, a \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2017

Firma





Usurbilgo Udala

## Anexo I

### IMPRESO DE SOLICITUD DE SUBVENCION DATOS DEL GRUPO o DEL SOLICITANTE

2017

#### A) DATOS DE LA ASOCIACION

Entidad solicitante:		Nº de registro:	
Domicilio social:			
Población:		CP:	
Teléfono:	E-mail:	NIF:	
Fax:			

#### B) DATOS DE LA PERSONA RESPONSABLE

Nombre y apellidos:		Cargo:	
Dirección:		CP:	
Teléfono:	Fax:	E-mail:	

#### B) DATOS DE LA CUENTA CORRIENTE

Entidad bancaria:	Sucursal:
Dirección de la sucursal:	Población:
Nº de c/c (20 dígitos):	

#### C) DATOS DE LA ASOCIACIÓN

Cuando se creó la asociación:	
Relación de actividades previstas por la asociación:	
Número actual de participantes:	
¿Organizáis alguna actividad junto a otras asociaciones del municipio?	¿Cuál?

#### D) ACTIVIDADES

Relación de las actividades que realizará la asociación en 2017  
(se deberá completar una ficha para cada actividad)

En Usurbil, a \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2017

\* De acuerdo con Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal estos datos no podrán ser utilizados para otros fines que nos han establecido expresamente.



Usurbilgo Udala

## Anexo II

# CERTIFICADO<sup>1</sup>

Mediante la presente, declaro que la Asociación \_\_\_\_\_  
está al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y en el  
cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social.

Para que quede constancia de lo expuesto, suscribo el presente documento.

En Usurbil, a \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2017

Firma

<sup>1</sup>

Únicamente deberán cumplimentarlo las asociaciones registradas



Usurbilgo Udala

### Anexo III

## DECLARACIÓN SOBRE OTRAS SUBVENCIONES AJENAS A LA DEL AYUNTAMIENTO DE USURBIL

### DATOS

Nombre-apellidos:		
Dirección:		
Herria:		CP:
Teléfono:	E-mail:	DIN:

### DECLARACION RESPONSABLE

No he solicitado ninguna otra subvención distinta a la del Ayuntamiento de Usurbil para las actividades presentadas.

He solicitado o tengo intención de solicitar las siguientes subvenciones:

Organismo:

Importe:

Para que quede constancia de lo expuesto, suscribo el presente documento.

En Usurbil, a \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2017

Firma



Usurbilgo Udala

## Anexo IV

# CERTIFICADO

Mediante la presente, declaro que la Asociación \_\_\_\_\_ en el proceso de admisión o funcionamiento de sus miembros no incurre en discriminación alguna.

Para que quede constancia de lo expuesto, suscribo el presente documento.

En Usurbil, a \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2017

Firma



Usurbilgo Udala

## Anexo V

# CERTIFICADO

De conformidad con los artículos 3.1 y 24.2 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, declaro que la Asociación \_\_\_\_\_:

- No infringe el principio de igualdad de mujeres y hombres en lo referente a: objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización y /o estatutos.
- No infringe las prohibiciones derivadas de la Ley 18/4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
- No ha sido sancionada administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo.
- Que se cumplen los requisitos establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres.
- Que en el proceso de admisión o funcionamiento de sus miembros no discrimina a nadie por razón de sexo.

Para que quede constancia de lo expuesto, suscribo el presente documento.

En Usurbil, a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_, de 2017

**Firma**



Usurbilgo Udala

Anexo VI

**IMPRESO PARA LA SOLICITUD DE SUBVENCIÓN  
FICHAS DE ACTIVIDADES**

**2017**

<b>DENOMINACIÓN DE LA ACTIVIDAD</b>	
<b>DATOS GENERALES DEL PROYECTO</b>	
Objeto:	Grupo:
Descripción breve:	
¿Cuándo se ha realizado?	
¿Dónde se ha realizado?	
¿A quién está dirigida?	
¿Es una actividad de carácter público?	
Número estimado de participantes:	
¿Cuántas personas han participado en la organización? (Señalar la cantidad de mujeres y hombres)	
¿La actividad se ha realizado en solitario, o en colaboración con otros? ¿Con quién?	
¿Qué idioma se ha empleado para la actividad?	
¿Se ha generado algún tipo de publicación (publicidad, folletos...) en torno a la actividad?	

7 / 8

Joxe Martin Sagardia plaza. z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxa 943 371 493 • [www.usurbil.net](http://www.usurbil.net)



Usurbilgo Udala

**GASTO PARA ESTA ACTIVIDAD**  
(Detallar por conceptos)

**INGRESOS OBTENIDOS**

- Entidades públicas o privadas (Se indicará cada actividad subvencionada):

- Matrículas y/o ingresos:

- Varios:

**TOTAL GASTOS**

**TOTAL INGRESOS**

**CANTIDAD SOLICITADA AL AYUNTAMIENTO PARA ESTA ACTIVIDAD:**

**Observaciones:**

En Usurbil, a \_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de 2017

Firma

Joxe Martin Sagardia plaza. z.g. 20170 Usurbil • Tel. 943 371 951 • Faxe 943 371 493 • [www.usurbil.net](http://www.usurbil.net)

8 / 8